



2016

KULTUR JARDUEREN TXOSTENA

MEMORIA DE ACTIVIDADES CULTURALES

AURKIBIDEA

ÍNDICE

KONGRESU ZIENTIFIKOAK
CONGRESOS DE CARÁCTER CIENTÍFICO

pág. 5. orria

JARDUNALDIAK
JORNADAS

pág. 11. orria

JAIALDIAK ETA LEHIAKETAK
FESTIVALES Y CERTÁMENES

pág. 25. orria

HITZALDIAK ETA MASTERCLASS
CONFERENCIAS Y MASTERCLASS

pág. 29. orria

MINTEGIAK ETA TAILERRAK
SEMINARIOS Y TALLERES

pág. 39. orria

IKASLEEK ANTOLATUTAKO EKINTZAK
ACTIVIDADES ORGANIZADAS POR EL ALUMNADO

pág. 43. orria



KONGRESU ZIENTIFIKOAK

**CONGRESOS DE CARÁCTER
CIENTÍFICO**

DIGITARO: EUSKARAZKO KOMUNIKAZIOAREN II NAZIOARTEKO BILTZARRA DIGITARO: II CONGRESO INTERNACIONAL DE LA COMUNICACIÓN EN EUSKERA



TXOSTENA / MEMORIA

Komunikazio esparru euskalduneko protagonista ugari bildu ziren biltzar honetara, urriaren 20an, 21ean eta 22an.

Aurreko biltzarra, Euskarazko Kazetaritzaren Nazioarteko I. Biltzarra, Bilbon egin zen, 2004an. Ordurako, igartzen zen teknologia alaketak euskarazko komunikazioa markatuko zuela etorkizun hurbilean. Orain, komunikazioaren eta euskarazko komunikazioaren aro digitalean murgilduta gaude argi eta garbi, baina oraindik ere egiturazko desoreka handiak ditugu: euskarazko komunikazioa asaldaturik dago, hedabide guztiak bezalaxe, gero eta berehalakoagoak diren eta etengabe eraldatzen ari diren komunikazio moduen ondorioz.

Biltzarrean, hainbat arlotan (informazioa, gizartea, politika, fikzioa...), formatutan (informazioa, elkarrizketa, erreportajegintza...) eta euskarritan (papera, irratia, telebista, digitala...) lan egin duten eta egiten duten profesionalak komunikatzeko modu berri horietarako trantsizioa azaldu ziguten, eta euskarazko

komunikazioaren etorkizunarentzat berebiziko garrantzia duten zenbait arlo eztabaidatu genituen, publizitate instituzionala besteak beste. Honako hauek antolatzen eta sustatzen dute biltzarra: UPV/EHU (Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saila, Kazetaritza Saila eta Kazetaritza II Saila), UEU (Komunikazio Arloa), HEKIMEN (Euskal Hedabideen Elkarte), BERRIA TALDEA eta EITB.

Numerosos protagonistas del espacio de comunicación euskaldun se reunieron en este Congreso que se celebró durante los días 20, 21 y 22 de octubre.

Este Congreso tomó el testigo del I Congreso Internacional del Periodismo en Euskera que se celebró en Bilbao en 2004. Entonces se atisbaba ya para los medios de comunicación en euskera un futuro cercano marcado por el cambio tecnológico. Ahora estamos ya inmersos en la era digital de la comunicación y la comunicación en euskera, una realidad fehaciente ya, aunque con importantes

desequilibrios estructurales, aún, aparece convulsionada, como todos los medios, por unos modos de comunicación cada vez más inmediatos y en continua transformación.

Durante el congreso tuvimos la oportunidad de conocer la transición hacia estas nuevas formas de comunicación de la mano de diferentes generaciones de profesionales de la comunicación en euskera, que han trabajado y trabajan en diferentes áreas (información, sociedad, política, ficción,...), formatos (información, entrevista, reportaje,...) y soportes (papel, radio, televisión, digital,...), así como de discutir sobre diferentes áreas de vital importancia para el futuro de la comunicación en euskera como la publicidad institucional.

Este congreso está organizado y promovido por los siguientes agentes: UPV/EHU (Vicerrectorado del Campus de Bizkaia, Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación, Departamentos de Comunicación Audiovisual y Publicidad, Periodismo y Periodismo II), UEU (Área de Comunicación), HEKIMEN (Euskal Hedabideen Elkarte), BERRIA TALDEA y EITB

ZIBERKAZETARITZAREN NAZIOARTEKO VIII KONGRESUA VIII CONGRESO INTERNACIONAL DE CIBERPERIODISMO



TXOSTENA / MEMORIA

Kazetaritza etengabeko eraldaketan egon den arren, gaur egun aldaketa eta ziurgabetasun garai batean dagoela dirudi, Sarea eta hedabide digitalak sortu zirenekoaren antzekoa. Etengabeko gaurkotzeaz gain, informazioaren oparotasuna eta kontsumorako formato, gailu eta generoen berrikuntzarekin, kazetaritza partehartzailea arloko erronka nagusienetako bat da. Sarearen garapenak, 1.0tik 2.0ra, testinguru konplexuago bat sortu du, audientzien presentzia handiago batek komunikazio-prozesuan duen eraginak markatutakoa. Hiritarren zuzeneko parte-hartzea informazio produktuen sorreran, komunikabide tradizionak informazio iturri nagusi bezala ordezkatzera ere eramán du kasu batzuetan. Beste ondorioen artean, kazetarien gaitasunak web 2.0ra birziklatu beharko dira. Audientziak, eta hiritar-erabiltzaileak edo bezeroak -kasuan kasu- geroz eta aktiboagoak eta partehartzaileagoak direnez, ezinbestekoa da ere adituen profil-profesionalak garatzea, hau

da, komunikatzeko modu berriak eta kazetaritzarako espresio berriak lantzea.

Ziberkazetaritzaren Nazioarteko VIII Kongresuak hiritar kazetaritzaren eta kazetari elkarreragileen esperientziak eta ereduak aztertzen ditu. Arreta handia eskaintzen dio ere erabiltzaileek sortutako edukiek duten kalitatearen eztabaidari, eta audientzien eta komunikabideen harremanari, komunikazioaren demokratizazioa sendotzeko bide bezala.

Si bien el Periodismo siempre ha estado en continua transición y cambio, en los últimos tiempos parece estar viviendo un momento especial de transformación e incertidumbre, similar al que ya se vivió con el surgimiento de la Web y de los propios cibermedios. Junto con la actualización constante, la abundancia informativa y la innovación en formatos, géneros y dispositivos de consumo, la participación de las audiencias representa hoy uno de los principales motores de innovación, tanto a nivel profesional, como académico. El paso

del 1.0 al 2.0 contribuyó a evolucionar hacia este escenario complejo, determinado por la mayor presencia del público en el proceso comunicativo, una intervención que alcanza, incluso, a la fase productiva de los medios.

Estas posibilidades han obligado a reconfigurar la actitud de los medios, su papel de intermediación y su relación con las fuentes, en vista de la necesidad de “escuchar” en un contexto en el que los ciudadanos toman la palabra y hacen oír su voz. En este sentido, los periodistas han visto adaptar sus tareas y habilidades, enfocando éstas al trabajo informativo también en los medios sociales, además de trabajar con formas de expresión caracterizadas por una mayor libertad y creatividad.

En la línea de la reflexión promovida en anteriores ediciones, el Congreso Internacional de Ciberperiodismo pretende acercarse a estas realidades a partir de múltiples visiones expertas, encargadas de analizar desde ángulos complementarios la naturaleza, la calidad y la utilidad de la participación del público ciudadano para fortalecer el valor democrático de la información mediatizada.

"ITALIARTASUNA AZTERGAI". NAZIOARTEKO KONGRESUA CONGRESO INTERNACIONAL "LA ITALIANIDAD, A EXÁMEN"



TXOSTENA / MEMORIA

Italiartasuna, gaur egun, Umberto Eco, Roberto Benigni, Paolo Sorrentino, Roberto Saviano, Claudio Abbado, Pier Paolo Pasolini, Federico Fellini, Michelangelo Antonioni, Italo Calvino, Sandro Pertini, Pirandello, Eduardo de Filippo eta Ermenegildo Zegna dira, ziur asko. Italiartasuna dira, halaber, pasta, pizza, supermerkatuko panetonea, Fiat bat, Alfa Romeo bat eta Ferrari bat. Eta italiartasuna da, era berean, Salernoren eta Reggio di Calabriaren arteko autobide ustez amaigabe eta infernutarraren mitoa eta amesgaiztoa, Mesinako itsasarteko zubiaren gai korapilatsua, baita Casalesi klana bezalako erakunde kriminalak ere. Italiartasun ustezkoak biltzen dituen ezin konta ahala alderdi horiek aintzat harturik, ba al dakizu zein baldintza behar diren analisiaren xedea eta italiartasunaren interesa argi eta garbi bereizteko?

Gainera, lehenik eta behin, italiartasuna nortasun bat osa dezaketen ezaugarrien artean dagoenez, eta nortasun horrek arazoak ekar ditzakeenez arlo sozialari, kulturalari, ekonomikoari eta politikoari dagokionez (baita ondorio praktikoa ere), beharrezkoa da italiartasunaren deskribapenean inplikaturiko kategorien axiologizazio etikoari erreparatzea.

Alde horretatik, "Italiartasuna aztergai" biltzarrean, hain zuzen, italiartasun balioaren garrantzia nola eratzen den aztertu zen, betiere beste desberdintasun edo balio batzuei zabalik dagoen balio gisa harturik. Nortasuna ez da beti amarru bat; izan ere, desberdintasun hori sortzen laguntzen duen zentzua desberdintasunen adiskide ona balitz bezala eraiki daiteke (diskurtsiboki, fenomenoaren ondorioz), eta, hala, desberdintasun horiei buru egin diezaieke adeitasunez. Informazio gehiago

Organizado por la UPV/EHU (Dep. de Filología Hispánica, Románica y de Teoría de la Literatura; Fac. de Letras; y Dep. de Comunicación Audiovisual y Publicidad, Fac. de CC. Sociales y Comunicación) para la SEI (Sociedad Española de Italianistas): XVI congreso internacional de la SEI.

Información adicional:
La italianidad es hoy, de manera muy probable, Umberto Eco, Roberto Benigni, Paolo Sorrentino, Roberto Saviano, Claudio Abbado, Pier Paolo Pasolini, Federico Fellini, Michelangelo Antonioni, Italo Calvino, Sandro Pertini, Pirandello, Eduardo de Filippo, Ermenegildo Zegna. La italianidad es también la pasta, la pizza, el panetone del supermercado, o un Fiat, un Alfa Romeo o un Ferrari. Pero es igualmente

el mito y pesadilla de una supuestamente interminable e infernal autopista entre Salerno y Reggio-Calabria, el tormentone del virtual puente del estrecho de Mesina, e incluso una organización criminal, como la camorra dei Casalesi.

En este abanico interminable de ámbitos en el que se despliega, en principio, la supuesta italianidad, ¿cuáles deben de ser las condiciones para distinguir con claridad el objeto de análisis y su interés? Además, también de entrada, al pertenecer la italianidad a la esfera de los rasgos eventualmente constitutivos de una identidad, y al poder ser entendida esta identidad muy fácilmente de un modo social, cultural, económica y políticamente problemático, con consecuencias prácticas incluso graves, resulta necesario, también antes de empezar, prestar atención a la axiologización ética de los valores de las categorías implicadas en su descripción. En tal sentido, el congreso La italianidad, a examen analizó cómo se construye la significación en y con el valor italianidad. Un valor que se desearía poder analizar siempre como diferencia abierta festivamente a otras diferencias, a otros valores. La identidad, en efecto, no es siempre una trampa, porque el sentido que contribuye a producir esa diferencia puede ser construido (discursivamente, por los fenómenos) como buen amigo de las diferencias a las que así, gentilmente se opone.



JARDUNALDIAK
JORNADAS

BILBOKO IBAIAN ZEHA TXANGO GIDATUA MIRADA SOCIOLÓGICA DESDE LA RIA



LABURPENA / RESUMEN

Azken mendean gure inguruneak jasan dituen gizarte eta hiri aldaketak ezagutzeko Bilboko ibaian zehar txango gidatua. Txango hasi baino lehen aldaketen eta gertakarien momentu nagusienak antzemateko azalpen analitikoak eskainiko da.

Excursión guiada por la ría de Bilbao de cara a ver las transformaciones sociales y urbanísticas que se han ido produciendo a lo largo del último siglo en nuestro entorno más cercano precedida de una explicación analítica de lo acontecido que permita detectar cada uno de los hitos y eventos acontecidos para trabajar después en el aula

MUSIKA ETA POLITIKA: MAHAI-INGURUA ETA MUSIKA-ENTZUNALDIA ZUZENEAN MÚSICA Y POLÍTICA: MESA REDONDA Y AUDICIÓN EN VIVO

LABURPENA / RESUMEN

Emeritutzaren jardueren harira, Politika eta Administrazio Zientzia Saileko Francisco Letamendia irakasleak hitzaldi batzuk antolatu zituen kultura politikoaren eta zientziaren, artearen eta erlijioaren arteko lotura aztertzeko. Mahai inguru bat egin zen zenbait piezaren entzunaldiekin batera, eta esplorazio horrekin jarraitu zen, kultura politikoaren eta musikaren arteko loturak ezarriz. Hiru aditu aritu ziren horretan, hala unibertsitateko irakasleak nola konpositoreak, eta egungo musikarekin eta Berpizkundeko musikarekin uztartu zuten lotura hori. Horrekin batera, tokian-tokian zein mundu osoan izen handia duten musikariek zenbait pieza jo zituzten zuzenean. Hasteko, Ion Zelaia musikarierromantikoaren eta nazionalismoaren arteko loturari buruz hitz egin zuen.

Ondoren, Julen Zelaia nazionalismo flamenkoaren adierazgarri diren bi pieza jo zituen. Felix Ibarrondok, berri, musikaren ezaugarri sakratuak eta musika jasoaren eta herri musikaren arteko harremanaz hausnartu zuen. Silboberri, bestalde, Ezineruntz lana aurkeztu zuen, eta Andoni del Amok, azkenik, hizpide izan zituen egungo musika eta musika horrek egoera politiko postmodernoarekin daukan lotura.

En el marco de las actividades del Emeritazgo, el profesor del Departamento de Ciencia Política y de la Administración Francisco Letamendia se organizaron una serie de charlas para analizar la relación entre la cultura política y la ciencia, el arte o la religión. En este caso, con una mesa redonda acompañada de una audición de varias piezas, se continuó con esta exploración estableciendo las relaciones



entre la cultura política y la música. Para ello se contará con la presencia de tres expertos, profesores de universidad o compositores, que presentarán esta relación vinculándola con la música actual, la contemporánea y la música del renacimiento. Estas intervenciones se acompañarán de la audición en directo de varias piezas, a cargo de músicos de gran prestigio local e internacional. Se comenzó con una presentación a cargo de Ion Zelaia sobre la vinculación entre la música romántica y el nacionalismo. A continuación Julen Zelaia interpretó dos piezas representativas del nacionalismo Flamenco. Felix Ibarrondo reflexionó sobre el carácter sagrado de la música y la relación entre música culta y popular. Silboberri presentó su pieza ezineruntz. Ion Andoni del Amo habló de la música actual y de su relación con el contexto político postmoderno.

DENBORA AURREKONTUEN INKESTAK PRAKTIKA SOZIOLOGIKOAN LAS ENCUESTAS DE PRESUPUESTOS DE TIEMPO EN LA PRÁCTICA SOCIOLÓGICA

LABURPENA / RESUMEN

Jardunaldian, "Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoan denboraren erabileraren bitartez. Denbora-aurrekontuei buruzko inkesta, 1993-2013" monografikoa aurkeztu zen. Lan horrek Euskal Autonomia Erkidegoan azken hogeitazortzi urteotan gertatu diren gizarte aldaketa esanguratsuenak aztertzen ditu, Denbora Aurrekontuen Inkestako datuetan oinarrituta. Inkesta horrek biztanleen eguneroko bizitzari buruzko informazio zehatza ematen du, biztanleek eguneroko denbora nola erabiltzen duten kontuan hartuta eta denbora hori egun batean eginiko jardueren artean nola banatzen den aztertuta. Monografikoa Euskal Herriko

Unibertsitateko eta Eustateko analisten arteko lankidetzaren ondorioz osatuta, eta hainbat erakundetako adituek lagundu dute: UPV/EHUkoek, Madrilgo Complutense Unibertsitatekoek, Madrilgo Unibertsitate Autonomoek, Matia Fundaziokoek eta Destatis-Alemaniko Estatistika Institutukoek.

En la jornada se presentó el monográfico "Dos décadas de cambio social en la C.A. de Euskadi a través del uso del tiempo. Encuesta de Presupuestos de Tiempo, 1993-2013. Monográfico". La obra ofrece un análisis de los cambios sociales más relevantes que han tenido lugar en la C.A. de Euskadi en las dos

últimas décadas, a través del estudio y la interpretación de los datos de las Encuestas de Presupuestos de Tiempo. Dicha encuesta ofrece información exhaustiva sobre la vida cotidiana de la población desde la perspectiva del empleo de su tiempo diario, computando su distribución entre las actividades desarrolladas en una jornada. El monográfico se enmarca dentro del ámbito de colaboración entre analistas de la universidad y Eustat y ha contado con la contribución de especialistas de la UPV/EHU, la Universidad Complutense de Madrid, la Universidad Autónoma de Madrid y de otras instituciones como la Fundación Matia y DESTATIS-Instituto Alemán de Estadística.



"A TIRO DE PIEDRA DE LA CÁRCEL". DOKUMENTALAREN AURKEZPENA ENCUENTRO CON CARLOS GIL. DOCUMENTAL: "A TIRO DE PIEDRA DE LA CÁRCEL"

LABURPENA / RESUMEN

Irakaskuntza babesteko hitzaldia (profesional aktibo batek "A tiro de piedra de la Cárcel" dokumental luzearen sormen prozesuaz hitz egingo digu). Palestinan grabatutako "A tiro de piedra de la cárcel" dokumentalaren aurkezpena. Filmak Israelek espetxeratutako 7.000tik gora haur palestinarren errealtatera hurbiltzen gaitu, errealtate hori bizi izan duten hiru adingaberen lekukotzen bitartez. Ekitaldian, Carlos Gil zuzendaria izan zen, eta ikasleek filma sortzeko prozesua azaldu zuten. Ekitaldia "Guión II: Programas de no ficción – Gidoia II: Ez-fikziozko Programak" irakasgaietan antolatu zen.

Charla de apoyo a la docencia (conferencia de un profesional activo que nos hablará sobre el proceso creativo del largometraje documental "A tiro de piedra de la Cárcel"). Presentación del documental grabado en Palestina "A tiro de piedra de la cárcel" que se acerca a la realidad de los más de 7.000 niños palestinos encarcelados por Israel a través de los testimonios de tres menores que han vivido esa realidad. En el acto se contó con la presencia del director Carlos Gil que explicó al alumnado el proceso de creación de la misma. Este evento forma parte de la asignaturas "Guión II: Programas de no ficción – Gidoia II: Ez-fikziozko Programak".



ERREFUXIATUEN KRISIA: NARRATIBA HUMANITARIOOTIK KRIMINALIZAZIORA CRISIS DE REFUGIADXS: DE LA NARRATIVA HUMANITARIA A LA CRIMINALIZACIÓN

LABURPENA / RESUMEN

Errefuxiatuen krisiari eta komunikabideek krisi horretan duten eginkizunari buruzko jardunaldia. Honako hauek parte hartu zuten:

Jornada sobre la crisis de refugiados y el papel de los medios de comunicación que contó con la participación de:

Bego Zalbidea Bengoa - UPV/EHUko Kazetaritza Saileko zuzendaria
Directora Departamento Periodismo UPV/EHU

Anaitze Agirre Larreta - SOS Racismo Gipuzkoa

Sergi Cámara - Fotokazetari dokumentala
Fotoperiodista documental

Brigitte Vasallo - Idazlea, kazetaria, feminista, anti-arrazista
Escritora, periodista, feminista anti-racista



DOCUTALKS DOCUTALKS Improve your English enjoy DOCUMENTARY

LABURPENA / RESUMEN

Mundu osoan dokumentalen arloan lan egiten duten profesionalak hitzaldiak eman zituzten ingelesez. Jardunaldiak bi helburu izan zituen: (1) dokumental garaikidearen nazioarteko sektoreko ikasle eta profesionalen hainbat esparrutako ezagutzak hobetzea: errealizazioa, produkzioa, emanaldia, programazioa; (2) zinemako eta ikus-entzunezkoetako ingeles teknikoa praktikatzeko eta hiztegi espezifiko ikasteko espazio bat ematea.

Charlas en inglés impartidas por profesionales del documental que trabajan en el ámbito internacional. El objetivo de las jornadas es doble: (1) mejorar los conocimientos del alumnado y profesionales del sector respecto a la dimensión internacional del documental contemporáneo en distintos ámbitos: realización, producción, exhibición, programación (2) ofrecer un espacio para practicar el inglés técnico y aprender vocabulario específico de cine y audiovisuales.



ZER GERTATZEN DA EMAKUME ERREFUXIATUEKIN? ¿QUÉ PASA CON LAS MUJERES REFUGIADAS?

LABURPENA / RESUMEN

UPV/EHUko Amnistia Internazionala taldeak siriar emakume errefuxiatuen egoeraz antolatutako jardunaldia izan da, eta Fakultateko irakasleek parte hartu dute bertan.

El próximo 19 de abril, martes a las 15.00 Amnistía Internacional UPV/EHU organizará una charla-debate sobre el tema de las MUJERES REFUGIADAS SIRIAS en el Auditorio de la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación. Con los representantes invitados de CEAR y profesores de nuestra propia universidad.



ARRAKALAK ETA AHULEZIAK. SOLDATA, ZAINZA ETA KONTZILIAZIOA DE BRECHAS Y QUEBRANTOS: SALARIO, CUIDADO Y CONCILIACIÓN

LABURPENA / RESUMEN

Inork ez du zalantzan jartzen: gaur egun, ezinbestekoa da generoan oinarritutako soldata arrakala desagerraraztea emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko eta, horrela, hirugarren adineko emakume askok jasaten duten pobrezia eta bazterkeria prebenitzeko. Hainbat faktorek eragiten dute arrakala hori, baina pisu handiena duen faktorea da gizonek baino emakume askoz ere gehiagok hartzen dituztela beren gain ordaindu gabeko lanak; besteak beste, etxeko lanak eta seme-alaben edo senideen zaintza. Alde horretatik, soldataren arrakala eta zaintzaren arrakala erabat lotuta daude; hain da estua lotura, ezen lan bizitza, familia bizitza eta bizitza pertsonala hobeto uztartuko balira eta erantzukidetasuna hobetuko balitz, berdintasun handiagoa egongo bailitzateke emakumeen eta gizonen artean. Testuinguru horretan, jardunaldiaren gaia gaur-gaurko da. Jardunaldian Euskal Herriko

Unibertsitateko hainbat ikertzailearen parte hartzea izan duten bi ikerketa aurkeztu ziren: batetik, "Brecha de salario y brecha de cuidado. Dos factores de desigualdad de género" ikerketa proiektua, Capitolina Díazez eta Carles Simó elkarrekin zuzendua (Euskal Herriko Unibertsitateko Patricia Campelo, Ana Irene del Valle, Marian Ispizua, Amaia Izaola, Elisa Usategui eta Imanol Zubero irakasleek parte hartu dute proiektuan), eta, bestetik, UPV/EHUko Merche Larrañaga eta Yolanda Jubeto irakasleek zuzendutako UPV/EHUko laneko genero desberdinkeriei buruzko ikerketa proiektua.

No hay quien ponga en duda en la actualidad que la eliminación de la brecha salarial de género es una condición "sine que non" para caminar hacia una igualdad real de mujeres y de hombres y prevenir de este modo situaciones de pobreza y exclusión de un buen número de mujeres



en la tercera edad. Son múltiples los factores explicativos de dicha brecha, pero tiene un peso sustancial el hecho de que las mujeres se responsabilizan mucho más que los hombres de tareas no remuneradas, como son el trabajo doméstico y el cuidado de los niños y/o familiares. En este sentido brecha salarial y brecha de cuidado están íntimamente relacionadas, hasta el punto de que avanzar en una mejor conciliación y corresponsabilidad entre la vida laboral, familiar y personal redundaría claramente en una mayor igualdad entre mujeres y hombres. En este contexto la temática de la Jornada tiene una plena actualidad. En la jornada se presentaron dos investigaciones en las que han participado investigadoras/es de la Universidad del País Vasco: El proyecto de investigación "Brecha de salario y brecha de cuidado. Dos factores de desigualdad de género", codirigido por Capitolina Díaz y Carles Simó, en el que han participado las/os profesoras/es de la Universidad del País Vasco Patricia Campelo, Ana Irene del Valle, Marian Ispizua, Amaia Izaola, Elisa Usategui e Imanol Zubero; y el proyecto de investigación dirigido por las profesoras de la UPV/EHU Merche Larrañaga y Yolanda Jubeto sobre desigualdades laborales de género en la UPV/EHU]

KOMUNIKAZIOA ETA HAURTZAROAREN I^o JARDUNALDIA I JORNADA DE COMUNICACIÓN E INFANCIA'



LABURPENA / RESUMEN

Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak bere babes eskainiko dio Save the Children eta UNICEF Euskal Herriko Batzordeak antolatutako 'Komunikazioa eta Haurtzaroaren I^o Jardunaldia'. 'Komunikabideak, haurren pobrezia eta ume errefuxiatuak' titulupean, jardunaldian zehar komunikabideek gaurkotasunezko bi gairi emandako tratamendua aztertuko zen: haurren pobrezia batetik, eta errefuxiatu eta migratzaileem krisiaren ondorioz kaltetutako haurrak bestetik

La Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) acogió la 'I Jornada de Comunicación e Infancia', organizada por Save the Children y UNICEF Comité País Vasco. Con el título 'Medios de Comunicación, pobreza infantil e infancia refugiada', la jornada analizó el tratamiento de dos temáticas de actualidad: la pobreza infantil y los niños y niñas afectados por la crisis de refugiados y migrantes.

En la jornada tomaron parte:

Adela Úcar (ETB), César Coca (El Correo), Eider Hurtado (Onda Vasca), Juan Carlos de Rojo (Radio Euskadi), Susana Martín (Deia) y Estefanía Jiménez (EU Kids Online UPV-EHU), Ane Irazabal, Iker Pastor y Mikel Ayestaran, Ainara Lertxundi (Gara), Cristina Sánchez (RNE) y Nicolás Castellano (Cadena Ser)

parte hartu zuten jardunaldian.

ERAKUSKETA MUESTRA

Fakultatea / Facultad
maiatzak 6 mayo

Politika eta
Administrazio Zientzia
Ciencia Política y de la
Administración

IRAKASLEAK
PROFESORADO
Mario Zubiaga
Edorta Arana

TIRABIRAK: EUSKAL GATAZKA BINETETAN TIRABIRAK. EL CONFLICTO VASCO A TRAVÉS DE LAS VIÑETAS

LABURPENA / RESUMEN

52 umoregile grafikoren erakusketaren inaugurazioa, tartean dela UPV/EHUko kazetari eta irakasleak RIPA eta TASIO marrazkilariei egindako elkarrizketa.

Inauguración de la muestra "Tirabirak" en la que se contó con la participación en un debate con los humoristas gráficos TASIO y RIPA.



PITCHING SESSION UPV/EHU 2016 PITCHING SESSION UPV/EHU 2016

LABURPENA / RESUMEN

Ikusentzunezko Komunikazio eta Publizitate Sailaren laguntzarekin eta Errealizazio II irakasgaiaren barruan, Vanesa Fernández Guerrak Pitching Session UPV/EHU 2016 antolatu zuen fakultateko Auditoriumean. Hauek ziren aurkeztutako proiektuak:

Sesión de Pitching de proyectos del alumnado de la asignatura Realización II del grado de Comunicación Audiovisual realizada en el Auditorio de la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación. Participaron los siguientes proyectos:



FÉLIX (Fikziozko film laburra)

Uriel Gartzia, Sara Loiti, Xabier Fernández, Arantza Santiesteban, Paula Gómez y Ernesto Gómez.

¿QUÉ LE SUCEDIÓ A LA MUJER DEL MAÑANA? (Fikziozko film laburra)

Erlantz Miragaya, Adrián Nogales, María Martínez, Pello Maudó eta Tania Parra.

GLOOM (Fikziozko film laburra)

Aitor Divasson, Talia Hernando, Lander Díez, Nagore Juárez, Eneritz Casanova eta Sara Mauleón.

(DIS)CAPACITADOS (Dokumentala)

Asier Anzola, Andrea Núñez, Iñigo Sancho, Ana Lezama eta Eva Polidura.

EL TREN DE LAS 8 (Fikziozko film laburra)

Jorge Gómez, Luken Sánchez, Álvaro Delgado eta Gonzalo Alzueta.

ANOMÍA (Fikziozko film laburra)

COLECTIVO MUR

Llúcia Pla, Carlos Vega, Jordi Franco, Iñigo Larreina eta Eduardo Ramos.

UNIC (Dokumentala)

Cristina Rodrigo, Ane Sestafe, Markel Rey, Andrea Markaida eta Uxue Olabarria.

COACTIONS INORDINATIO (Film labor experimental)


Asier Martín, Olatz Pardo, Mixel Sábada, Luis Faustino eta Nerea López.

JOSEBA MACÍAS AMORES GOGORATUZ!! JOSEBA MACÍAS AMORES GOGORATUZ!!

LABURPENA / RESUMEN

Joseba Macias Amoresen hil osteko "La sociedad civil en la Revolución Cubana 1959-2012" liburuaren aurkezpena eta ondorengo solasaldia Rosa Martín, Ramón Zallo, Victor Pozas eta Iñaki Barcena irakasleekin.

Presentación del libro póstumo de Joseba Macias Amores "La sociedad civil en la Revolución Cubana 1959-2012" y coloquio posterior con la profesora Rosa Martín y los profesores Ramón Zallo, Victor Pozas e Iñaki Barcena



COREO(U)TOPIÁS: ZINEA, DANTZA ETA ESPAZIO PUBLIKOA CINE, DANZA Y ESPACIO PÚBLICO



TXOSTENA / MEMORIA

Ikerketa Performatiboaren II Nazioarteko Jardunaldiak sormen prozesuen eta dantzaren difusioari buruzko hausnarketa partekatua eratu nahi du, zinea, dantza, hiria eta genero-begiraden ikuspegietatik. Jardunaldiak ikerlariak eta dantziariek planteatu nahi du dantzaikerketaren zenbait gune itsuen gaineko ezaguera eta eztabaida sakontzeko praktika artistikoen bidez. Jardunaldiak ikerlariak eta dantziariek biltzen ditu ikerketa performatiboari buruzko galdera adierazkorren inguruan, besteak beste, idazkera filmikoak eta dokumentazio koreografiakoaren prozeduraz, sormen prozesuak eta dantza praktikak, eta dantza eta koreografiaren inskripzioaz espazio publikoan. Ikusleen tailerrak, bere partetik,

hausnarketa eta eztabaidarako espazio partekatua zabaltzen du zinea, dantza eta espazio publikoari buruz, bertara dantzariak eta koreografoak, ikasle eta irakasleak, ikerlariak eta publiko zabalarik gonbidatzen diogula, sormen, komunikazioa eta dantza-irakaskuntzaren formatu eta esperientzia anitzez eratutako programa ireki baten inguruan.

El II Encuentro Internacional Cine, danza, ciudad y mirada de género tiene por objetivo abordar una reflexión compartida acerca de los procesos de creación y difusión de la danza, desde la perspectiva de género.

El Encuentro plantea un cruce interdisciplinar de miradas desde la práctica artística con el propósito de profundizar en el conocimiento y debate en torno

a algunos de los puntos ciegos de la investigación en danza.

El Encuentro reúne a analistas y practicantes de la danza en torno a cuestiones relevantes para la investigación performativa, tales como las escrituras filmicas y los procedimientos de documentación coreográfica; el desarrollo de los procesos de creación y la práctica de la danza, y la inscripción de la coreografía y la danza en el espacio público.

Continuando con la temática de la Jornada, el Taller de Espectadores plantea un espacio compartido de reflexión y debate sobre cine, danza, mirada de género y espacio público, al que invitamos a participar a practicantes, docentes, investigadoras e investigadores y al público en general, en torno a un programa abierto a la diversidad de formatos y experiencias de creación, comunicación y formación en danza.

#EHU25DEBATEA. HAUTESKUNDE EZTABAIDA #EHU25DEBATEA. DEBATE ELECTORAL

LABURPENA / RESUMEN

Hauteskunde debatea egin zen, 2016ko irailaren 25eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak zirela eta. Honako hauek parte hartu zuten:

Debate electoral con motivo de las elecciones al Parlamento Vasco del 25 de septiembre de 2016. Contó con la participación de:

- Josu Erkoreka por EAJ-PNV
- Miren Larrion por EH Bildu
- Eneko Andueza (Socialistas Vascos)
- Cristina Ruiz (Partido Popular)
- Lander Martinez (Podemos/Ahal dugu)
- Nicolás de Miguel (Cuidadanos)



KAZETARITZA POLITIKOAREN ETA KOMUNIKAZIO ESTRATEGIKOAREN GAKOAK BATERATZEN DOAZEN HEDABIDEEN ESZENATEGIAN

CLAVES DEL PERIODISMO POLÍTICO Y LA COMUNICACIÓN ESTRATÉGICA EN EL ESCENARIO COMUNICATIVO CONVERGENTE

LABURPENA / RESUMEN

Jardunaldia Berta García Orosa irakaslearen agerraldiaz hasi zen, Santiago de Compostelako Unibertsitatekoa. Bertaratuei komunikazio bulegoek egun egiten duten lanaz hitz egin zien. Ondoren, Imanol Murua UPV/EHUko irakasleak Euskadiko erakunde politikoetako bulegoek egiten duten lan bereziari eta hedabide eta kazetariekin dituzten harreman motei erreparatu zien. Solasaldi horren bitartez, bertaratuek, aukera izan zuten hurbileko errealitate profesional bat ezagutzeko eta haren eguneroko zirrikitueta sakontzeko. Lehendabiziko mahai-inguruan, Ana Viñalsek azaldu zuen alderdi politiko jakin bat (Podemos) sare sozialetako haren komunikazioetan oinarrituz ernatu eta hazi egin daitekeela neurri bateraino. Bigarren mahai-inguruan, Deiako, Humberto Unzuetak, eta Julen Orbegozok, euskal hedabideetan informazio politikoak egun duen irismenaz eta Interneteko komunikazioen aukera onuragarriez eta kaltegarriez eztabaidatu zuten.

La jornada comenzó con la intervención de la profesora Berta García Orosa, de la Universidad de Santiago de Compostela, quien habló del trabajo actual de los gabinetes de comunicación. A continuación, Imanol Murua, profesor de la UPV/EHU, abordó el trabajo que los gabinetes de las organizaciones políticas del País Vasco llevan a cabo y el tipo de relación que mantienen con los medios. Esta charla permitió a los asistentes, conocer una realidad profesional cercana y profundizar en sus pormenores en el día a día. Tras la pausa café, se llevaron a cabo dos mesas redondas en las que se animó a participar activamente a los alumnos/as. En la primera mesa, Ana Viñals explicó cómo un partido político (caso de Podemos) puede gestarse y desarrollarse hasta cierto punto a partir de sus comunicaciones en las redes sociales, si bien esta posibilidad cuenta con pros y contras, según se apuntó también. En la segunda mesa Humberto Unzueta, y Julen Orbegozo, debatieron sobre el alcance actual de la información política en los medios vascos.



II Foro DCOM

LABURPENA / RESUMEN

2016ko urriaren 25ean, II. DCOM Foroa antolatu zen. DCOM urtero komunikazio arduradunentzat egiten den topaketa bat da eta, kasu errealean bitartez, praktika eta joera berriak ezagutzeko da haren asmoa. 2016ko foroan, barne komunikazioaren munduko pertsona adituek parte hartu zuten bertan. Komunikazio korporatiboko masterrak ekintza honen antolamenduan parte hartzen du, Dircom Norterekin kolaboratzen baitu.

El 25 de octubre de 2016 se organizó el II Foro DCOM es un encuentro anual para responsables de comunicación que pretende conocer nuevas prácticas y tendencias a través de casos reales. Esta edición 2016 contará con la participación de personas expertas en el mundo de la comunicación interna. El máster en comunicación corporativa participa en la organización del evento ya que colabora con Dircom Norte.



DOKUMENTALAREN EMANALDIA: "GAUR IREKIKO DITU ATEAK" PROYECCIÓN DEL DOCUMENTAL "GAUR IREKIKO DITU ATEAK"

LABURPENA / RESUMEN

"Gaur irekiko dituzte ateak"
dokumentalaren emanaldia
Euskaldunon Egunkariaren sorrerari
buruz, eta geroko solasaldia Eriz
Zapirain zuzendariarekin.

Proyección del documental "Gaur irekiko dituzte ateak" sobre el proceso de creación de Euskaldunon Egunkaria y posterior coloquio con el director Eriz Zapirain



KOMUNIKADORES JORNADA 2016 JORNADA KOMUNIKADORES 2016

TXOSTENA / MEMORIA

Hau izan da Komunikadores jardunaldia egin den hamahirugarren aldia. Bertan, publizitate arloko profesionalei gonbitea egin zaie haien lan prozesuak, laneko giroa eta egindako kanpainak azaltzeko, asmoan hartuta komunikazio agentzietan lanean jardun dezaketen askotariko lizentziaturetako ikasleek enpresei zein haien lan metodologiei buruzko lehen eskuko lekukotzak ezagutu ahal izatea. Gainera, ikasleei aukera bat eman nahi zaie profesionalekin solas egiteko eta laneko etorkizunerako interesgarritzat jotzen dutena galdetzeko.

Esta fue la décimo tercera edición de la jornada Komunikadores por la que se invita a profesionales del sector de la publicidad a que expongan sus procesos de trabajo, ambiente laboral y campañas realizadas, con el objetivo de que los alumnos de las diversas licenciaturas que puedan desarrollar su labor profesionales en agencias de comunicación puedan conocer de primera mano testimonios sobre la empresas y sus metodologías laborales. Así como para dar una oportunidad a los estudiantes para interactuar con profesionales y preguntar lo que consideren interesante para su futuro laboral.




PSICONAUTAS, KOMIKITIK FILMERA PSICONAUTAS, DEL CÓMIC A LA PELÍCULA

LABURPENA / RESUMEN

Pedro Rivero bilbotar zinema zuzendariaren master classa, fakultateko ikasleei Psiconautas bere luzemetraia aurkezten. Film horrek Espainiako animazioko pelikula onenaren Goya saria eraman zuen 2016an.

Masterclass de Pedro Rivero, coguionista y codirector del largometraje. El largometraje fue galardonado en 2016 con el premio Goya a la mejor película española de animación.



"ÉL NUNCA ME PEGÓ" DOKUMENTALAREN EMANALDIA PROYECCIÓN DEL DOCUMENTAL "ÉL NUNCA ME PEGÓ"

TXOSTENA / MEMORIA

Hedabideek emakumeen kontrako indarkeria adierazten duten moduari buruzko gogoeta egitea helburutzat hartuz, "Él nunca me pegó" dokumentala eman zuten; ondoren, eztabaida izan zen Irantzu Varela zuzendariarekin.

El documental "Él nunca me pego" se centra en el modo en el que los medios de comunicación reflejan la violencia contra las mujeres. A la proyección del documental le sucedió el coloquio con la directora Irantzu Varela



EHU IRRATI MARATOIA EHU IRRATI MARATOIA



LABURPENA / RESUMEN

EHUko Kazetaritza eta Ikus-entzunezko zazpi irakasle eta 50 ikasleek ?EHU Irrati Maratoia? egin dugu pasa den Abenduak 2an, Euskararen Eguna ospatzeko. Ekimena Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irradi estudioetan egin zen, eta zuzenean jarraitu ahal izan zen EHUTbn eta Fakultateko Auditorioan eta plasma guztietan. Horrez gain, Mikel Laboa plazan ere bozgorailuak jarri ziren.

Más de 50 estudiantes y siete profesoras de los departamentos de Comunicación Audiovisual y Publicidad y Periodismo I y II participaron en la organización del día del Euskera el pasado 2 de diciembre. El acto se desarrolló en los estudios de radio de la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación y se pudo seguir en directo a través de EHUTb en el auditorio y en las pantallas de la Facultad. Además se desarrollaron diferentes actividades paralelas de promoción del Euskera en la plaza Mikel Laboa



PAPERIK GABEKO EGUNA DÍA SIN PAPEL



LABURPENA / RESUMEN

Azken hiru urteotan, ekimen berezia bultzatu dugu Fakultatean: Paperik Gabeko Eguna. Egunaren xedea, kontsumoa jaisteari begira, gure paper erabileraren inguruan gogoeta egitea izan da. Hasieratik, 2013tik, begi onez hartu izan da ekimena eta, besteak beste, esanguratsua izan da fotokopiagailuetan izandako paper erabileraren jaitsiera egun horretan zehar. Azken edizioan, esate baterako, %60,9 jaitsi zen fotokopia kopurua Paperik Gabeko Egunean. Horrela bada, ekintzari jarraipena emateko asmoz, datorren abenduaren 16an, PAPERIK GABEKO EGUNaren laugarren edizioa ospatuko dugu. Egunean zehar, Atezaintza, Dekanotza eta Idazkaritzan ez da paper zuririk erabiliko; hau da, ez da dokumenturik inprimatuko, fotokopiarik egingo, ziurtagiririk edo aktarik banatuko, etab. Presako beharra duten dokumentuak emango dira soilik. Horretaz gain, dakizuenetz, urtero

ekimen bereziren bat ere antolatu ohi da egun horretarako. Aurreko urtean Güeñesko Paperezko Soinekoen Nazioarteko Lehiaketan parte hartu zuten hainbat soineko ipini ziren erakusgai Fakultateko sarreran. Aurtengoan bestelako erakusketa izango dugu: TRATE tailerrekoen eskutik kartoiz egindako altzarien erakusketa bat izango dugu Fakultateko sarreran. Ekimen hau begi onez hartuko duzulakoan eskerrak eman nahi dizugu zure parte hartzeagatik.

Desde hace tres años se viene celebrando un evento especial en la Facultad: el "Día Sin Papel". El objetivo de esta jornada es reflexionar acerca del uso que hacemos del papel. Desde la primera edición, la iniciativa ha tenido una buena respuesta, y entre otras acciones llevadas a cabo durante ese día, ha sido significativa la reducción del consumo de papel. En la última edición del Día Sin Papel se disminuyó en un 60,9% el

número de fotocopias realizadas. Para dar continuidad al evento, el próximo 16 de diciembre, se va a celebrar la cuarta edición del DÍA SIN PAPEL en la Facultad. Durante ese día, en Conserjería, Decanato y Secretaría no se consumirá papel nuevo; es decir, no se imprimirán documentos, ni se harán fotocopias, ni se emitirán certificados, actas, etc. Únicamente se expedirán los documentos de urgente necesidad. Además, a lo largo del día, se suele organizar algún evento especial. El año pasado se pudieron ver, en la entrada de la Facultad, algunos de los vestidos que participaron en las últimas ediciones del Concurso Internacional de Vestidos de Papel de Güeñes. Este año contaremos con una exposición distinta: gracias al taller TRATE tendremos en la entrada de la Facultad una exposición original de muebles hechos con cartón. Esperamos que este año también acojas la iniciativa con agrado y agradecemos tu participación en este día.



**JAIALDIAK ETA
LEHIAKETAK
FESTIVALES Y
CERTÁMENES**

BILBAO WEBFEST



LABURPENA / RESUMEN

